

# KANALAK

Gure aplikazioan, kanalak egongo dira eskuragarri. Horrekin, gure aplikazioa erabiltzen duten jendeari harremana eskainiko diegu eta hortaz aparte gure proiektua helaraziko dugu.



Aplikazioaren barruan, forua, telefonoa eta sexologoa egongo dira baliagarri. Bertan, beraien iritzia, esperientziak eta dudak argitzeko aukera izango dute, era anonimo batean. Jarritako guztia irakurriko dugu, eta dudak erantzuten saiatuko gara. Hala ere, bezeroen artean laguntzeko aukera egongo da. Forua hiru

atal desberdinetan bereiziko dugu: zalantzak (argitzen saiatuko garenak), esperientziak eta aholkuak.

Telefonoari dagokionez, beste enpresa batzuekin harremanetan egoteko erabiliko dugu (*Influencer*, *bazkideak...*). Bezeroek deitzeko aukera izango dute aplikazioari buruzko zalantzak argitzeko.



Gure aplikazioan eskainiko dugun beste zerbitzu bat sexologoarekiko harremana izango da. Sexologo batekin jarriko gara kontaktuan, eta gure plataforman txertatuko dugu bere informazio guztia. Bezeroek bilera pribatu bat nahi izanez gero, berari deitu eta telefono edo bideodei baten bidez argituko du bere zalantza. Bezeroek bilera hori izateko, ordaindu egin beharko dute.

Bukatzeko, gure aplikazioa helarazteko, gaur egun hain indartsuak diren sare sozialak eta haien influentzia erabiliko dugu. *Influencer* batzuekin jarriko gara kontaktuan eta gure plataforma eskainiko diegu (pribilegio batzuekin hala nola sexologoarekin elkarrizketa dohain izatea). Aplikazioa erabili eta gero, beraien *Instagram*, *Facebook*, *Twitter...* edo dena



delakoan beraien iritzia jarri beharko dute, eta gure plataforma publizitatu. Horrekin, beraien jarraitzaileak gure aplikazioa erabiltzea lortuko dugu.